

Iñaki Aspiazu: promesa baten historia

Zabali

Kaperau Argentinan

Bi urte gero, 1947an, kazetari gisa hasi zen hiriburu honen presondegian espetxeratuentzat tratu hobea eskatzen. Bost urte gero, 1952an, izan zen Argentinako Penitentziaria Nacional-eko kaperau izendatua, eta sei urte gero, 1948an, argitaratu zuen Latinoamerikako "Estudios y Acción Penitenciaria" izeneko Lehen Kongresuan eman zuen "El concepto cristiano de la pena y características del tratamiento penitenciario" hitzaldia. Urtebete aurretik sortua zuen, 1957an: "Secretariado de Ayuda Cristiana a las cárceles" eta honen babesean: "La casa del liberador". Ari zen, bada, Azpeitiko gartzelan aspaldi egin zuen promesa betetzen, eta eragintasun handiz, gainera: "Clarín" Buenos Airesko egunkariak egin zion elkarrizketa batean kazetariak aditzera ematen du Aita Aspiazuren eskutik pasatzen zen "%12 bakarrik itzultzen zela lapurretara". Apaiz eta euskaldun abertzale izaten jarraituz, noski, Euskal Kleroak 339 apaizen firmekin garrantzitsu hura hiru urte gero, 1960an, argitara zuenean, hor zegoen bere izena, eta eragina ere, Argentinako euskaletxeetan eta Latinoamerikako hiriburuetan; urte honetan bertan heldu zen Caracasera, Ameriketako euskal kleroaren mezulari bezala, eta neu Euskal Etxeko buru izatea suertatu zenez, lagundu nion hango telebistan bere agerraldiak prestatzen, eta biok gai hori eta frankismoari buruz zegokionari esan eta egin genituenagatik Enbaxada espainoletik madarikatuak eta mehatxatuak ere izan ginen, baina ez zuen honegatik Caracaseko telebista, ezta gobernua ere, noski ikaratu, eta don Iñakik esan behar zirenak esan zituen garbi asko, bi egunez emandako hitzaldietan; oso baitzen hizlari iaio eta aberatsa edozein hizkuntzatan. Laster, izan zuen beste agerraldi publikoa, orain European, eta Batikano II martxan zegoela (1962-1965); garai hartan argitaratu zuen ageri bategatik izan zen Madrilen Tribunal de Orden Público delakoak sei urte eta egun bateko gartzelaz zigortua.

Harrapatu ezin bazuten ere.

Noizpait ukitu zuen Francopelan emandako amnistia batek, eta 1974ean, bere lagun mina Ildefonso Gurrutxaga, historialaria, Donibane Lohitzun gaixotu eta Barriola-tarrei esker ongi eta etxeokok zaindua, Donostian hil zenean, hor izan zuen don Iñaki bere ondoan.

Liburu argiak ere idatzi zituen: "7 meses y 7 días en la España de Franco" eta "El caso de los católicos vascos", biak bizpahiru hizkuntzataraz itzuliak eta zabalkunde handia izan zutenak.

Herriratu nahi izan zuen, erbesteratu guztiek bezala, aparteko argia eta langilea izan genuen apaiz honek, baina bere hitza ongi bete nahi izan zuelako ezin ahal izan du.

Hala ere, ez al dago Buenos Aireseko hilerria Euskalerritik gertu?